# BEHAR BIDASOA MEMORIA 2024

behar bidasoa





Asamblea General Behar Bidasoa
*Behar Bidasoa erakundearen batzar orokorra*



Jornada en el Instituto Plaiaundi
*Jardunaldia Plaiaundi ikastetxean*




Jornada "Garapenean bidelagun" en Azkoitia
*Jardunaldia "Garapenean bidelagun" Azkoitian*




Jornada " Irun Munduarekin lankidetzan"
*Jardunaldia "Irun Munduarekin lankidetzan"*



Jornada de sensibilización en Azpetia
*Sensibilizazio jardunaldia Azpeitian*



Jornada en el Instituto Tierra Estella
*Jardunaldia Tierra Estella ikastetxean*

BEHAR BIDASOA

# MEMORIA DE ACTIVIDAD
## EJERCICIO 2024

# *JARDUEREN MEMORIA*
## *2024ko EKITALDIA*



Premio Voluntariado 2009
*Boluntariotza saria 2009*


**Presidente | *Lehendakaria***
Agustín Ugarte Manterola

**Vicepresidente | *Lehendakariordea***
José Manuel Soto Aranzadi

**Secretaria | *Idazkaria***
Pantxi Galán Azurmendi

**Tesorero | *Diruzaina***
Javier Goñi Echeverría

**Vocales | *Kideak***
Emilio Gutiérrez Tejedor
Adora Pérez Alkain
Ana Garcia Veintemillas
Josetxo Ugarte Egorleta
Josune Isasa Irigoien

**Delegaciones | *Ordezkariak***
Ana Garcia (Donostia)
Mª Luisa Beraza (Bizkaia)
Iñaki Lizaso (Azpeitia)
Ramón Unanue (Azkoitia)
Yosune Isasa / Mónica Pérez (Apadrinamientos)


## Índice
## *Aurkibidea*


1. Reflexiones / *Hausnarketak* — 05
2. Actividades y hechos significativos a nivel societario / *Erakunde mailako jarduera eta egitate aipagarriak* — 08
3. Programa general de actividades / *Jardueren programa orokorra* — 10
4. Polos de Desarrollo / *Garapen Poloak* — 18
5. Resumen económico de nuestra actividad / *Gure jarduearen ekonomia laburpena* — 30
6. Plan de actuación 2025 / *2025erako jarduera plana* — 34

## Behar Bidasoa es una Organización No Gubernamental de Cooperación al Desarrollo cuya Misión es:

· Promover, impulsar y apoyar con medios materiales y humanos, proyectos de desarrollo en respuesta a intereses objetivos de los pueblos del Tercer Mundo, esforzándose por no crear dependencia.

· Formar la conciencia ciudadana sobre estos temas mediante el estudio, la divulgación y la formación de las personas y de la opinión pública.

· Colaborar para aumentar y mejorar la cooperación internacional para el desarrollo de los pueblos del Tercer Mundo.

## Behar Bidasoa Garapenean Laguntzeko Gobernuz Kanpoko erakundea da eta bere egitekoa zera da:

· Baliabide materialen eta giza baliabideen bitartez garapenerako proiektuak sustatu, bultzatu eta laguntzea, Hirugarren Munduko herrien interes objektiboei erantzuteko, beti ere mendekotasunik ez sortzen ahaleginduz.

· Gai hauen inguruan herritarren kontzientzia prestatzea ikerketa, dibulgazio eta pertsonen eta iritzi publikoaren prestakuntzaren bitartez.

· Nazioarteko kooperazioa areagotu eta hobetzeko laguntzea, Hirugarren Munduko herrien garapenerako

## Principios y valores

· El respeto a la persona humana, a sus convicciones y valores, y a la diversidad cultural de los pueblos.

· Solidaridad y ayuda hacia las poblaciones que más sufren los problemas de desigualdad.

· Derechos humanos y el acceso a una ”vida digna“ para todas las personas, especialmente en los países empobrecidos.

· La equidad de género, alcanzando la igualdad manteniendo el reconocimiento de las diferencias.

· Restituir a los Países del Sur, como criterio de actuación y línea de pensamiento.

## Printzipioak / Balioak

· Pertsonari errespetua, bere iritzi eta balioei, herrien kultur aniztasunari.

· Elkartasuna eta laguntza desberdintasun arazoak gehien sufritzen duten herrientzat.

· Giza eskubideak eta pertsona guztientzat “bizimodu duina” lortzea, bereziki herrialde pobretuetan.

· Genero berdintasuna, desberdintasunaren aitortza mantenduz berdintasuna lortzeko.

· Hegoaldeko herriei berea ematea, jardueraren irizpide gisa eta pentsamendu-joera bezala.

Inscrita en el Registro General de Asociaciones del Gobierno Vasco. Nº de registro: ASG 01815/1989 - CIF: G-20-325700
*Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatua-Erregistro zenbakia: ASG 01815/1989 - IFK: G-20-325700*

# 1 | Reflexiones



En nuestra MEMORIA del pasado año, hablábamos de "la necesidad de recuperar el principio de realidad y valorar los acontecimientos que estamos viviendo con la seriedad que se merecen", al objeto de buscar soluciones para los graves problemas que aquejan a nuestra sociedad.

Pero. como bien explica el boletín de" Cristianismo y Justicia" en su reflexión de fin de año, la indiferencia frente al sufrimiento ajeno se ha convertido en algo normal en nuestra sociedad contemporánea del bienestar. Nos estamos anestesiando a base de un consumo compulsivo de objetos, de programas de entretenimiento en televisión, de series (neflix, Prime, ….), de seguimiento de "influencers" en las redes sociales …., que nos impiden prestar un mínimo de atención al sufrimiento ajeno o para levantarnos y alzar la voz contra sus causas.

Esa creciente indiferencia, no es solamente fruto de una irresponsabilidad individual, como si de repente hubiéramos olvidado nuestra condición de seres humanos y nos hubiéramos puesto a mirar para otro lado, por decisión propia. Esta indiferencia forma parte de la estrategia de un sistema que nos envuelve sutilmente, que satura nuestros sentidos, que nos va vendando los ojos, que nos hace dudar de los hechos mismos.

Un buen ejemplo de ello, aunque no el único, es la situación que estamos viviendo en Palestina. La evidencia del horror del ataque terrorista de Hamás asesinando a familias enteras, secuestrando a otras, y la evidencia del horror de los bombardeos y ametrallamiento indiscriminado del ejército israelí sobre la población civil, con cerca de cincuenta mil muertos (muchos de ellos mujeres y niños), de los miles y miles de heridos, sin asistencia sanitaria suficiente; del hambre generado por el bloqueo de alimentos …, ha quedado oculta bajo una venda de opinantes e informadores que han

# 1 | Hausnarketak

Iazko gure MEMORIAN, "errealitatearen printzipioa berreskuratzeko eta bizi ditugun gertaerak merezi duten seriotasunarekin baloratzeko beharraz" hitz egiten genuen, xedea baita gure gizarteak dituen arazo larriei irtenbidea bilatzea.

Baina, "Cristianismo y Justicia" buletinak urte amaierako hausnarketan ondo azaltzen duen bezala, inoren sufrimenduarekiko axolagabetasuna normala bihurtu da gure garaiko ongizatearen gizarte. Anestesiatzen ari gara, modu konpultsiboan kontsumituz: direla objektuak, direla telebistako entretenimendu-saioak, direla telesailak (neflix, Prime…). ), direla sare sozialetako "influencer-ak" eta abar luze bat. Horrek eragotzi egin digu besteren sufrimenduari gutxieneko arreta ematea edo haren kausen aurka altxatu eta ozenki adieraztea.

Gero eta handiagoa den axolagabetasun hori ez da norbanakoaren arduragabekeriaren ondorioa soilik, bat-batean gure gizaki-izaera ahaztu eta geure erabakiz beste alde batera begiratzen hasi bagina bezala. Axolagabekeria hori sistema baten estrategiaren parte da: sotilki inguratzen gaituzte, gure zentzumenak asetzen dituzte, begiak bendatzen dizkigute, eta gertaerak ere zalantzan jarrarazten dizkigute.

Horren adibide on bat, bakarra ez bada ere, Palestinan bizitzen ari garen egoera da. Hamasek familia osoak erailez eta beste batzuk bahituz egindako eraso terroristaren izugarrikeriaren ebidentzia, eta Israelgo armadak biztanleria zibilaren aurka egindako bonbardaketa eta metrailamendu neurrigabeen izugarrikeriaren ebidentzia (berrogeita hamar mila hildako inguru, horietako asko emakumeak eta haurrak, milaka eta milaka zauritu, osasun-laguntza nahikorik gabe; elikagaien blokeoak eragindako gosea …), ezkutuan geratu da gure eta gertakarien artean ehundaka pantaila jarri dituzten iritzi-emaile eta informatzaileez osatutako benda baten azpian, tesi neoliberalek oso berezkoa duten argudioaren forma emanez.

**"Erresistitzeko unea da, guztion eskubideen alde zutik jartzeko unea, edozein dela ere posizio soziala, kolorea edo erlijioa. Demokrazia, egia, justizia, berdintasuna eta aberastasuna hobeto banatzea defendatzeko unea da."**

**"Es el momento de resistir, de ponerse de pie por los derechos de todos, sea cual sea su posición social, color o religión, de defender la democracia, la verdad, la justicia, la igualdad y un mejor reparto de la riqueza."**

puesto entre nosotros y los hechos centenares de pantallas, en forma de diferentes argumentos, muy propio de las tesis neoliberales.

Y lo evidente, en este caso, es la muerte de miles de civiles inocentes, bajo las bombas de un ejército que, en nombre de una supuesta legítima defensa, actúa contra el derecho internacional humanitario, con el apoyo descarado de muchos países "democráticos", algunos de larga tradición cristiana.

La indiferencia nos lleva a pensar en que solo existe lo que nos muestran los medios de comunicación privados (propiedad de grandes corporaciones que protegen sus intereses), y los públicos, influenciados muchos de ellos por los poderes políticos gobernantes, que parecen buscar más el entretenimiento que la información de la realidad, con el fin de anestesiarnos y preocuparnos solo de nosotros mismos.

Todo esto impide o dificulta que nos preguntemos qué es lo que empuja a los miles de emigrantes llamados "ilegales" a dejar sus países de origen, realizando travesías de cientos y miles de kilómetros, jugándose la vida en el intento de llegar a un lugar donde poder vivir dignamente.

Poco conocemos de las guerras que se están llevando a cabo en países de África y Asia; de las hambrunas que asolan a amplias zonas del mundo, provocando miles de muertes por desnutrición, especialmente de niños; de los regímenes políticos dictatoriales o corruptos, que provocan el horror en sus poblaciones, con detenciones, asesinatos, …. ; de las sociedades religiosas fundamentalistas, que sojuzgan a las mujeres, por el hecho de serlo, que castigan la homosexualidad; …..

A este desconocimiento, está contribuyendo el auge de los grupos de extrema derecha en nuestros países. Con un

Eta, kasu honetan, begi bistakoa dena da milaka zibil errugabe hiltzen ari direla, ustezko defentsa legitimo baten izenean nazioarteko zuzenbide humanitarioaren aurka diharduen armada baten bonben pean eta herrialde "demokratiko" askoren babes lotsagabearekin, batzuk tradizio kristau luzekoak gainera.

Axolagabekeriak pentsarazten digu komunikabide pribatuek (beren interesak babesten dituzten korporazio handien jabetzakoak) eta publikoek (haietako asko botere politiko agintarien eraginpean) erakusten digutena bakarrik existitzen dela. Aidanez, entretenimendua bilatzen dute errealitatearen informazioa baino gehiago, gu anestesiatzeko eta geure buruaz bakarrik kezka gaitezen.

Horrek guztiak eragotzi edo zaildu egiten du gure buruari galdetzea zerk bultzatzen dituen "ilegalak" deituriko milaka emigranteak euren jatorrizko herrialdeak uztera, ehunka eta milaka kilometroko zeharkaldiak eginez, bizitza jokoan jarriz duintasunez bizi ahal izateko leku batera iristeko ahaleginean.

Ezer gutxi dakigu Afrika eta Asiako herrialdeetan egiten ari diren gerrei buruz; munduko eremu zabaletan jasaten dituzten goseteei buruz, desnutrizioagatik milaka heriotza eraginez, batez ere haurrenak. Ezer gutxi dakigu erregimen politiko diktatorial edo ustelei buruz, zeintzuk haien populazioetan izua eragiten duten (atxiloketak, hilketak…), gizarte erlijioso fundamentalistei buruz, zeintzuk emakumeak emakume izateagatik zapaltzen dituzten eta homosexualitatea zigortzen duten. Eta abar luze bat.

Ezjakintasun horrek lagundu egiten du eskuin muturreko taldeek gora egin dezaten gure herrialdeetan. Diskurtso xenofobo, matxista, ultraliberal baten bidez, eta mezu faltsu edo gehiegizkoez baliatuz, asko konbentzitzen ari dira beren arazoak etorkinek eragiten dituztela, eta etorkin horiek geldiarazi eta kanporatu egin behar direla nola edo hala; eta gizarte-politikek ere eragiten dituztela, ahulenak babestu nahi dituztelako, eta haien iritziz baliabide publiko horiek murriztu egin behar dira xahuketa bat direlako. Bien bitartean, aberatsak are aberatsagoak izatea lortzen dute, eta pobreak are pobreagoak, eta horrela ekonomia-, gizarte-, osasun- eta kultura-desberdinkeria bultzatzen dute, eta lortzen dute pobreak ez konturatzea haiek eta haien politikak direla beren arazoen kausa.

Egoera horren adibide argia Estatu Batuek eman digute. Donald Trump hautatu dute presidente, eskrupulurik gabeko gizon bat, bizitza osoan bere onura ekonomiko eta politiko hutsaren alde jardun duena, bere fortuna eta boterea handitzeko beharrezkoak diren ekintzak –legezkoak edo ilegalak, moralak edo inmoralak– hotz-hotzean erabakiz eta gauzatuz, kaltetuak gertatzen direnak erabat mespretxatuz.

discurso xenófobo, machista, ultraliberal, y valiéndose de mensajes falsos o exagerados, están consiguiendo convencer a muchos de que sus problemas son causados por los emigrantes, a los que hay que frenar y expulsar como sea; por las políticas sociales, que buscan proteger y amparar a los más débiles, y que ellos consideran un derroche de recursos públicos que hay que recortar, mientras que consiguen que los ricos lo sean aún más, y los pobres más pobres, favoreciendo la desigualdad económica, social, sanitaria, cultural, …, pero consiguiendo que éstos no perciban que son ellos y sus políticas la causa de sus problemas.

Un claro ejemplo de esta situación nos la ha dado Estados Unidos. Ha elegido como presidente a Donald Trump, un hombre sin escrúpulos, que ha actuado toda su vida en su exclusivo beneficio económico y político, decidiendo y ejecutando fríamente las acciones necesarias para aumentar su fortuna y su poder, fueran legales o ilegales, morales o inmorales, con absoluto desprecio a los perjudicados por ellas.

Con todo, lo peor va a ser el impulso y respaldo que la vuelta al poder de Trump va a dar a los líderes, partidos y movimientos de extrema derecha o neofascistas, en todo el mundo. Un movimiento antidemocrático, supremacista, segregacionista, ultranacionalista y violento, que ya estaba en auge y ahora va a florecer más que nunca, en particular entre sectores y sociedades del bienestar, como las europeas, siempre temerosas de perder sus privilegios y que, paradójicamente, está llegando a grupos de trabajadores, descontentos con los partidos tradicionales, que han olvidado o no se han enterado del daño que a la humanidad produjeron los movimientos nazis y fascistas. El triunfo de Trump conlleva la terrible confirmación de que la mentira, la manipulación, el cinismo y la desvergüenza, no solo no son reprobados en el mundo actual, sino que conducen al éxito y al poder.

Vienen malos tiempos, tiempos de tormenta. Pero hay que vencer la tentación de guarecerse en la indiferencia, la pasividad o la melancolía. Es el momento de resistir, de ponerse de pie por los derechos de todos, sea cual sea su posición social, color o religión, de defender la democracia, la verdad, la justicia, la igualdad y un mejor reparto de la riqueza. Lo que tanto esfuerzo, sangre, sudor y lágrimas ha costado a muchos, no podemos permitir que sea destruido por el egoísmo, la crueldad, la falsedad, la avaricia o la ambición política de unos pocos.

A pesar de todo, siempre nos queda la esperanza de que un mundo mejor es posible, porque también hay mucha gente pequeña, haciendo cosas pequeñas con dedicación y esfuerzo, que son capaces de mejorar la vida de muchas personas. En ese camino estamos y estaremos.



Hala eta guztiz ere, okerrena izango da Trump boterera itzultzeak mundu osoko lider, alderdi eta eskuin muturreko mugimenduei edo mugimendu neofaxistei bultzada eta babesa emango diela. Mugimendu antidemokratikoa, supremazista, segregazionista, ultranazionalista eta biolentoa, lehendik ere gorantz zihoana eta orain inoiz baino gehiago loratuko dena, bereziki ongizatearen sektore eta gizarteen artean –Europakoetan, esaterako–, beti beren pribilegioak galtzeko beldurrez. Eta, paradoxikoki, langile-multzoetara iristen ari da, alderdi tradizionalekin pozik ez daudelako eta ahaztu dutelako edo ez direlako jabetu mugimendu naziek eta faxistek nolako kaltea egin zioten gizateriari. Trumpen garaipenak baieztapen ikaragarri bat dakar berarekin: gezurrak, manipulazioak, zinismoak eta lotsagabekeriak, egungo munduan gaitzetsiak ez izateaz gain, arrakasta eta boterea dakartzatela.

Garai txarrak datoz, ekaitz garaiak. Baina aurre egin behar zaio axolagabekerian, pasibotasunean edo malenkonian babesteko tentazioari. Erresistitzeko unea da, guztion eskubideen alde zutik jartzeko unea, edozein dela ere posizio soziala, kolorea edo erlijioa. Demokrazia, egia, justizia, berdintasuna eta aberastasuna hobeto banatzea defendatzeko unea da. Hainbeste ahalegin, odol, izerdi eta malko kostatu zaiona askori, ezin dugu onartu gutxi batzuen berekoikeriagatik, krudelkeriagatik, faltsukeriagatik, zikoizkeriagatik edo anbizio politikoagatik suntsi dadin.

Hala eta guztiz ere, beti geratzen zaigu mundu hobe bat posible delako esperantza, jende txiki asko ere badagoelako, gauza txikiak eginaz dedikazioz eta esfortzuarekin, pertsona askoren bizitza hobetzeko gai direnak. Bide horretan gaude eta egongo gara.

# 2 | Actividades y hechos significativos a nivel societario

En un mundo que enfrenta desafíos crecientes, las necesidades humanas no solo aumentan, sino que se hacen más urgentes. En Behar Bidasoa, seguimos firmes en nuestro compromiso de generar un cambio real y duradero en los países del Sur, donde las dificultades son inmensas. Sabemos que, si bien nuestras propias realidades nos afectan, nuestra mirada debe ir más allá, hacia quienes enfrentan una pobreza extrema, hambre, analfabetismo y una invisibilización histórica de las mujeres y las personas en situación de vulnerabilidad.

Este año, una vez más, nos enorgullece presentar nuestra **Memoria de Actividades**, un reflejo de todas las acciones realizadas, de los logros alcanzados y de las historias que marcan la diferencia. Un informe que no solo detalla actividades, sino que también refleja los principios y valores que nos guían: la justicia, la solidaridad y la lucha por la igualdad.

Aunque algunas de nuestras iniciativas puedan parecer simples, para quienes se benefician de ellas, cada paso que damos transforma vidas. Con este trabajo conjunto, que no habría sido posible sin el apoyo invaluable de personas voluntarias, instituciones y personas solidarias, hemos logrado avances significativos en las comunidades que atendemos.

**Acciones en 2024:**

- **Junta General y Proyectos a Futuro:** En cumplimiento con la normativa, celebramos nuestra Junta General para aprobar las Cuentas Anuales y el Plan de Actuación para 2024, junto con la elección de nuestra nueva Junta Directiva. Este es un momento importante para reflexionar sobre nuestro camino y proyectar nuevas metas.
- **Transparencia y Compromiso:** En nuestro afán por mantener la confianza y transparencia, hemos registrado nuestras cuentas en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco y cumplido con todas las declaraciones fiscales pertinentes. Además, la auditoría externa realizada por **GAYCA Auditores** (de forma gratuita) refuerza nuestra integridad financiera, asegurando que cada recurso recibido se destine eficazmente a los proyectos que más lo necesitan.
- **Seguimiento y Nuevas Propuestas:** La Junta Directiva ha realizado un exhaustivo seguimiento de todos nuestros proyectos, revisando cada acción y asegurando que

# 2 | Erakundearen jarduera eta egitate aipagarriak

Gero eta erronka handiagoei aurre egin behar dien mundu honetan, giza beharrak, handitu ez ezik, premiazkoagoak ere bihurtzen dira. Behar Bidasoan, Hegoaldeko herrialdeetan benetako aldaketa iraunkorra sortzeko konpromisoan tinko jarraitzen dugu, zailtasunak izugarriak dira baina. Gure errealitateek gugan eragina badute ere, gure begiradak haratago joan behar du, muturreko pobreziari, goseari, analfabetismoari eta ahultasun-egoeran dauden emakumeen eta pertsonen agertezintasun historikoari aurre egiten dietenengana. Hori argi dugu.

Aurten, beste behin ere, harro gaude gure **Jarduera Memoria** aurkezteaz, egindako ekintza guztien, lortutako lorpenen eta desberdintasuna markatzen duten istorioen isla baita. Txosten honek, jarduerak zehazteaz gain, gidatzen gaituzten printzipio eta balioak ere islatzen ditu: justizia, elkartasuna eta berdintasunaren aldeko borroka.

Gure ekimenetako batzuk sinpleak ematen duten arren, haietaz baliatzen direnentzat, ematen dugun urrats bakoitzak bizitzak eraldatzen ditu. Boluntarioen, erakundeen eta pertsona solidarioen hain babes baliotsurik gabe ezinezkoa izango zatekeen elkarlan honekin, aurrerapen esanguratsuak lortu ditugu artatzen ditugun komunitateetan.

**2024ko ekintzak:**

- **Batzar Orokorra eta Gerora begirako Proiektuak:** Araudia betez, gure Batzar Nagusia egiten genuen 2024rako Urteko Kontuak eta Jarduera Plana onesteko eta gure Zuzendaritza Batzorde berria aukeratzeko. Oraingo hau une garrantzitsua da gure bideaz hausnartzeko eta helmuga berriak proiektatzeko.
- **Gardentasuna eta Konpromisoa:** Konfiantza eta gardentasunari eutsi nahian, gure kontuak Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan erregistratu ditugu, eta dagozkion zerga-aitorpen guztiak bete ditugu. Gainera, **GAYCA Auditores** enpresak egindako kanpo-auditoretzak (doan) gure finantza-osotasuna indartzen du, jasotako baliabide bakoitza gehien behar duten proiektuetara eraginkortasunez bideratuko dela ziurtatuz.
- **Jarraipena eta Proposamen berriak:** Zuzendaritza Batzordeak gure proiektu guztien jarraipen zehatza egin du, ekintza bakoitza berrikusiz eta erronka bakoitza azkar eta eraginkortasunez konponduko dela ziurtatuz. Gaine-

cada desafío sea resuelto con rapidez y eficacia. Además, hemos evaluado nuevas propuestas de nuestras contrapartes en los países beneficiarios, siempre en busca de innovar y mejorar nuestra labor.

- **Redes y Colaboraciones:** Behar Bidasoa sigue siendo un miembro activo de la **Coordinadora de ONGs de Euskadi**, participando en reuniones que nos permiten mantenernos al tanto de la realidad de otras organizaciones y fortalecer nuestra red de apoyo mutuo. Además, pertenecemos a la **Red Internacional por la Sostenibilidad Ambiental en la Lucha contra la Pobreza**, trabajando por un desarrollo humano que integre la justicia social y ambiental. Igualmente, seguimos colaborando con el Consejo Asesor de Bienestar Social y la **Comisión de trabajo de Cooperación y Tolerancia del Ayuntamiento de Irun**.

**Colaboración Comunitaria:**

El apoyo de la comunidad local sigue siendo crucial. Este año también, el coro **Atzokoak** ha donado la recaudación de su tradicional concierto navideño, alcanzando una generosa suma de **1.008,25€** que contribuirá a nuestros proyectos. Estos gestos reflejan el compromiso de la sociedad bidasotarra con nuestra misión.

**Visitas y reuniones especiales**

A finales del mes de septiembre tuvimos la oportunidad de compartir un día con Milagros Sanz, representante de Behar Bidasoa en Kabuga y responsable de la coordinación del PDK. Lleva más de 40 años trabajando desinteresadamente en Rwanda en favor de las personas con menos recursos.

También pudimos compartir una reunión presencial con Isabel Segarra, misionera que dirige el proyecto Kamelot en Tanzania y con el que colaboramos desde hace varios años. Escuchar y conocer de primera mano las situaciones que se dan en el día a día en estos lugares es importante para conocer las necesidades que podemos atender desde aquí.

**Mirada al Futuro**

Aunque el camino es largo y lleno de retos, seguimos avanzando, paso a paso, con firmeza y esperanza. Las acciones que hemos llevado a cabo este año son solo un capítulo más en nuestra lucha contra la pobreza y la exclusión social. En Behar Bidasoa, nacimos con el propósito de hacer un mundo más justo, y cada logro, por pequeño que sea, es una victoria compartida.

Gracias a cada persona y organización colaboradora que sigue apostando por nuestra causa. Personas particulares, ayuntamientos, fundaciones: sin vuestro apoyo, nada de esto sería posible. Seguiremos trabajando por transformar realidades y construyendo un futuro más esperanzador.

Y no podemos finalizar esta presentación sin mostrar nuestro reconocimiento y gratitud hacia **Emilio Gutiérrez**, colaborador y miembro de la Junta Directiva de Behar Bidasoa desde hace más de 20 años. Falleció el pasado mes de diciembre. ¡Descanse en Paz¡

ra, herrialde onuradunetan, hangoek egindako proposamen berriak ebaluatu ditugu, betiere berritzeko eta gure lana hobetzeko.

- **Sareak eta Kolaborazioak:** Behar Bidasoak **Euskadiko GKEen Koordinakundeko** kide aktiboa izaten jarraitzen du, eta bileretan parte hartzen dugu, aukera ematen baitu beste erakunde batzuen errealitatearen berri izateko eta elkarri laguntzeko sarea indartzeko. Gainera, **Pobreziaren Aurkako Borrokan Ingurumen Jasangarritasunaren aldeko Nazioarteko Sareko kide** gara, hor ere justizia soziala eta ingurumenekoa integratuko dituen giza garapenaren alde lan egiteko. Era berean, Irungo **Udaleko Gizarte Ongizateko Aholkularitza Kontseiluarekin eta Lankidetza eta Tolerantziako Lan Batzordea**rekin elkarlanean jarraitzen dugu.

**Kolaborazio komunitarioa:**

Tokiko komunitatearen babesak erabakigarria izaten jarraitzen du. Aurten ere, **Atzokoak** abesbatzak Eguberrietako kontzertuan bildutako dirua eman du dohaintzan: guztira, **1.008,25 euro**, gure proiektuetan laguntzeko. Horrelako jardunbideek Bidasoko gizarteak gure misioarekin duen konpromisoa islatzen dute.

**Bisita eta bilera bereziak**

Irailaren amaieran Kabugako Behar Bidasoako ordezkari eta PDK-ko koordinazio arduradun Milagros Sanzekin egun bat partekatzeko aukera izan genuen. 40 urte baino gehiago daramatza Rwandan eskuzabaltasunez lanean baliabide gutxien dituzten pertsonen alde.

Horrez gain, aurrez aurreko bilera bat izan genuen Isabel Segarrarekin, Kamelot proiektua Tanzanian zuzentzen duen misiolariarekin. Duela urte batzuetatik ari gara harekin lankidetzan. Leku horietan egunerokoan gertatzen diren egoerak bertatik bertara entzutea eta ezagutzea garrantzitsua da, hemendik artatu ditzakegun beharrak ezagutzeko.

**Etorkizunari begira**

Bidea luzea eta erronkaz betea den arren, aurrera jarraitzen dugu, urratsez urrats, irmo eta itxaropentsu. Aurten egin ditugun ekintzak pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako gure borrokako beste kapitulu bat baino ez dira. Behar Bidasoan, mundu justuago bat egiteko asmoz jaio ginen, eta lorpen bakoitza, txikia izanda ere, garaipen partekatua da.

**Eskerrik asko**, gure alde egiten jarraitzen duen pertsona eta erakunde kolaboratzaile bakoitzari. Pertsona partikularrak, udalak, fundazioak: zuen laguntzarik gabe, hau guztia ez litzateke posible izango. Errealitateak eraldatzeko eta etorkizun itxaropentsuago bat eraikitzeko lanean jarraituko dugu.

Eta ezin dugu aurkezpen hau amaitu Behar Bidasoako Zuzendaritza Batzordeko kide eta kolaboratzaile **Emilio Gutierrezi** gure esker ona adierazi gabe. Joan den abenduan hil zen. Atseden hartu Bakean!

# 3 | Programa general de actividades

# 3 | Jarduera programa orokorra

## 3.1 ENVÍO DE AYUDA HUMANITARIA

Como sabéis los que seguís nuestra actividad, Behar Bidasoa puso fin en 2021 al envío de contenedores, que comenzó en 1980. A lo largo de los años, esta iniciativa permitió movilizar más de 1.700 toneladas de materiales destinados a países como Polonia, Rwanda, Congo, Paraguay, Angola, Bolivia, Argentina, República Dominicana y Haití. Sin embargo, debido a la disminución de las donaciones y las crecientes dificultades logísticas en los destinos (documentación, tasas,etc.), esta actividad ya no resultaba viable económicamente.

A pesar de este cierre, seguimos realizando pequeños envíos puntuales, principalmente a Rwanda. En 2024 se enviaron 28 paquetes de ayuda humanitaria.

## 3.2 PUESTA EN MARCHA DE PROYECTOS DE DESARROLLO

Desde sus inicios, Behar Bidasoa ha entendido la cooperación como un proceso de desarrollo humano integral. Esto significa que no solo buscamos el crecimiento económico, sino el fortalecimiento de las capacidades y la interacción entre las personas, abordando la problemática desde diversos ángulos y con un enfoque continuo.

Nuestra labor continúa con la colaboración activa de nuestras contrapartes, fundamentales para la ejecución de los proyectos. Son ellas las que mejor conocen las necesidades de cada comunidad y las que se encargan de llevar a cabo las acciones necesarias para su resolución.

Actualmente, estamos presentes en los siguientes **Polos de Desarrollo**: Kabuga (Rwanda), Villarrica (Paraguay) y Pereira (Colombia), cada uno con su propia sección dentro de esta memoria, donde detallamos las acciones realizadas.

Además, seguimos atendiendo a colectivos vulnerables a través de proyectos más asistenciales, que buscan aliviar situaciones complicadas y garantizar una respuesta efectiva a las necesidades locales. Muchas de estas iniciativas las llevamos a cabo desde hace años, porque las problemáticas persisten y las contrapartes siguen justificando con éxito los recursos enviados.

## 3.1. BIDALITAKO LAGUNTZA HUMANITARIOA

Gure jarduna jarraitzen duzuenok dakizuenez, Behar Bidasoak 2021ean amaiera eman zion edukiontzien bidalketari (1980an hasi zen). Urteetan zehar, ekimen horri esker, 1.700 tona material baino gehiago mobilizatu ziren Poloniara, Rwandara, Kongora, Paraguaira, Angolara, Boliviara, Argentinara, Dominikar Errepublikara eta Haitira, besteak beste. Hala ere, dohaintzak gutxitu egin direnez eta helmugetan gero eta zailtasun logistiko handiagoak daudenez (dokumentazioa, tasak, etab.), jarduera hori jada ez zen bideragarria ekonomikoki.

Nahiz eta amaitu, bidalketa txikiak egiten jarraitzen dugu, batez ere Rwandara. 2024an, laguntza humanitarioko 28 pakete bidali ziren.

## 3.2. MARTXAN JARRITAKO GARAPEN PROIEKTUAK

Hasieratik, Behar Bidasoak giza garapen integraleko prozesu gisa ulertu du lankidetza. Horrek esan nahi du hazkunde ekonomikoa ez ezik pertsonen arteko elkarreragina indartzea dela gure asmoa, arazoari hainbat ikuspegitatik eta ikuspegi jarraituarekin helduz.

Gure lanak hango aldeen lankidetza aktiboarekin jarraitzen du, funtsezkoak baitira proiektuak gauzatzeko. Beraiek dira komunitate bakoitzaren beharrak hobekien ezagutzen dituztenak eta hauek konpontzeko beharrezkoak diren ekintzak aurrera eramateaz arduratzen direnak.

Gaur egun, **Garapen Polo** hauetan gaude: Kabuga (Ruanda), Villarrica (Paraguai) eta Pereira (Kolonbia), eta bakoitzak bere atala du memoria honen barruan, eta haietan zehazten ditugu egindako ekintzak.

Gainera, kolektibo zaurgarriei laguntzen jarraitzen dugu proiektu asistentzialagoen bidez. Horien helburua da egoera zailak arindu eta tokiko beharrei erantzun eraginkorra ematea. Ekimen horietako asko aspalditik egiten ditugu, arazoek bere horretan jarraitzen dutelako eta hango aldeek bidalitako baliabideak arrakastaz justifikatzen jarraitzen dutelako.

Atal honetan, Bagamoyo (Tanzania), Kamatongo (Ruanda), Nyatike-Kadem (Kenia), Ngandanjika (Kongoko ED),




En este apartado se incluyen los proyectos en: Bagamoyo (Tanzania), Kamatongo (Rwanda), Nyatike-Kadem (Kenya), Ngandanjika (R.D. Congo), Mfereji (Tanzania), Trans-Ekulu Enegú (Nigeria) y Bibwa/Nganda Yala (R.D. Congo).

### 3.2.1 BAGAMOYO(TANZANIA)

**Kamelot: un hogar para menores en situación de vulnerabilidad**. Kamelot es un proyecto dirigido por la misionera Isabel Segarra, enfocado en ofrecer un hogar a niños y niñas huérfanas o abandonadas. Su propósito central es crear un entorno familiar donde cada niño/a se sienta querido y respetado, rodeado del apoyo de la comunidad que forma la "gran familia".

Además de proporcionar un hogar lleno de cariño, estos niños y niñas reciben todo lo necesario para su desarrollo: alimentación, atención sanitaria, escolarización, entre otros. En la fase final del proyecto, que se centra en su inserción social e independencia, se les brinda el acompañamiento necesario para dar este importante paso, sin perder nunca el vínculo con su "casa familiar", que permanece como un punto de referencia constante.

La mejora del bienestar infantil es una causa irrenunciable para Behar Bidasoa. Kamelot trabaja cada día para alcanzar este objetivo, y por ello, seguimos apoyando su crecimiento. Este año, hemos enviado una subvención total de 9.200 euros con la aportación recibida de Fundación Orona (1.100€ y 8.100€ de donaciones de particulares).

Mfereji (Tanzania), Trans-Ekulu Enegú (Nigeria) eta Bibwa / Nganda Yala (Kongoko ED).

### 3.2.1. BAGAMOYO (TANZANIA)

Kamelot: zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeentzako etxe bat. Kamelot Isabel Segarra misiolariak zuzendutako proiektu bat da, eta helburua du umezurtzei edo ume abandonatuei etxe bat eskaintzea. Asmo nagusia da familia-ingurune bat sortzea haur bakoitza maitatua eta errespetatua senti dadin, "familia handia" osatzen duen komunitatearen babesean.

Etxe horretan maitasuna eskaintzen zaie, baina baita haur horiek garapenerako behar duten guztia ere: elikadura, osasun-arreta, eskolaratzea, besteak beste. Proiektuaren azken fasean, gizarteratzea eta independentzia lortzeko behar duten laguntza ematen zaie, "familia-etxearekin" duten lotura inoiz galdu gabe, beti izango baita haien erreferentzia-puntua.

Haurren ongizatea hobetzea Behar Bidasoak inoiz alde batera utziko ez duen kausa bat da. Kamelotek egunero egiten du lan helburu hori lortzeko, eta horregatik, haz dadin babesten jarraitzen dugu. Aurten, 9.200 euroko dirulaguntza bidali dugu guztira, Orona Fundaziotik jasotako 1.100 euroko ekarpenarekin; partikularren dohaintzetatik, berriz, 8.100 euro.

### 3.2.2. KAMATONGO (RUANDA)

Natividad eta Josefa misiolarien bidez, Kamatongon (Ruanda) espetxeratutako pertsonei laguntzen jarraitzen dugu. Horiek preso ahulenentzako elikagai eta sendagaietara bideratzen dituzte gure funtsak. Haien lana erabakigarria da, izugarrizko laguntza ematen baitie oso baldintza zailetan bizi ahal izateko. Behar Bidasoatik uste dugu babes horrek, urrutitik bada ere, konpainia morala eta itxaropena ematen diela beren egoerari aurre egiteko eta etorkizun hobe baten alde borrokatzeko. 12.000 euroko ekarpena egin dugu.

### 3.2.3. NYATIKE-KADEM (KENYA)

Aurten ere Ahizpa Pasiotarrek kudeatzen duten haurren abegi-etxea babestu dugu, zeinak helburua baitu oinarrizkoena ere ez duten adingabeei hezkuntza eta arreta eskaintzea. Proiektuak premiazko beharrei erantzuten die, hala nola higieneari eta elikadurari. Kenyan zailtasun ekonomikoak, intolerantzia politikoa eta egutegi akademiko ziurgabea bizi ditugun honetan, gure ekarpenaren helburua da haien ongizatea hobetzea eta garapen pertsonala eta soziala bultzatzea. 2.000 euroko dirulaguntza bidali dugu kausa horretan laguntzeko.

### 3.2.2 KAMATONGO(RWANDA)

Seguimos apoyando a las personas encarceladas en Kamatongo (Rwanda) a través de las misioneras Natividad y Josefa, quienes destinan nuestros fondos a alimentos y medicinas para los presos más vulnerables. Su labor es crucial, ya que les proporciona una ayuda vital en condiciones extremadamente difíciles. Desde Behar Bidasoa, creemos que este apoyo, aunque a distancia, les brinda compañía, moral y esperanza para enfrentar su situación y luchar por un futuro mejor. Se ha realizado una aportación de 12.000€.

### 3.2.3 NYATIKE-KADEM(KENYA)

Este año también hemos apoyado la casa de acogida de niños y niñas gestionada por las Hermanas Pasionistas, cuyo objetivo es ofrecer educación y atención a menores que carecen de lo más básico. El proyecto responde a necesidades urgentes como la higiene y la alimentación. En un contexto de dificultades económicas, intolerancia política y un calendario académico incierto en Kenia, nuestra contribución busca mejorar su bienestar y favorecer su desarrollo personal y social. Hemos enviado una subvención de 2.000€ para apoyar esta causa.

### 3.2.4 NGANDANJIKA(R.D. CONGO)

Colaboramos con este proyecto a través de la Fundación Signos Solidarios, dirigida por Mª Cruz Andueza (anterior responsable de Jopoi en Paraguay). El objetivo del proyecto ha sido mejorar las condiciones educativas e higiénicas del centro Robertanna M.I.C. En particular, se ha construido un comedor escolar para ofrecer un espacio adecuado para que los niños y niñas coman, además de servir para reuniones con padres y madres, actividades extraescolares y encuentros con el personal docente. Behar Bidasoa ha aportado **7.000 euros** para este proyecto.

### 3.2.5 MFEREJI (TANZANIA)

